


Lezoko Unibertsitateko Udala



**LEZOKO BEKOERROTA KIROLDEGIKO ETA ALTZATE IGERILEKUETAKO KIROL  
INSTALAZIOEN KUDEAKETA INTEGRALA ZERBITZUA KONTRATATZEKO  
ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA.**

**I. KONTRATUAREN EDUKIA**

**1. KONTRATUAREN XEDEA**

Baldintza agiri honetan oinarritzen den kontratuaren xedea LEZOKO BEKOERROTA KIROLDEGIKO ETA ALTZATE IGERILEKUETAKO KIROL INSTALAZIOEN KUDEAKETA INTEGRALA da, agiri honen arabera eta preskripzio teknikoaren arabera.

CPV-2008: 92610000-0 kodea (Kirol instalazioak ustiatzeko zerbitzua).

**2. EPEA**

Kontratuaren iraupena URTEBETEKOA izango da, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik hasita. Kontratua luzatu egin daiteke beste URTEBETEZ, bi aldeek hala erabakitzen badute, eta luzapen eta guzti kontratuak, gehienez, bi urte iraun dezake.


Kontratua 2015eko urtarrilaren 2an hasia aurreikusten da.

**3. KONTRATUAREN AURREKONTUA**

2014rako aurreikusitako zerbitzuaren negozio bolumena 900.000 €-koa da urtean (BEZ gabe).

Udalak, zerbitzuaren ustiapenean eman daitekeen defizita orekatzeko, gehienez 274.000 €ko aurreikuspena egiten du kontuetan horri aurre egiteko. Lizitatzailleak zenbateko hori beharrezko aukera izango du bere proposamen ekonomikoan, behar bezala justifikatuta eta ez da kopuru hori gainditzen duen proposamenik onartuko.

2. oinarrian aurreikusitako luzapena egitea erabakiz gero, Udalak ordainduko duen diru kopurua murriztu egin ahal izango da, ustiapen emaitzen arabera, modu egokian ziurtatuak egon beharko direnak.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Du 2006/19 zenbakia duen DEKRETOZ  
2014(e)ko Uztailaren 9(e)an onartua.

Lezo,



2014 UZT. 09

Idazkariak,

#### 4. FINANTZIAZIOA

Lezoko Udalak 2015 urteko aurrekontuetan 274.000 €ko diru partida jasotzeko konpromisoa hartzen du eta behar adineko kreditu erreserba egingo du 2016ko ekitaldian.

#### 5. ORDAINTZEKO MODUA

Dirulaguntzaren ordainketa, zatikako sei ordainketetan banatua, Kudeaketa Batzordean bi hilabetero ustiapen kontuak aurkeztu eta Batzordearen onarpen txostena jaso ondoren egingo da.

#### 6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Ez da halakorik aurreikusten.

#### 7. BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, 45.000 €-ko behin betiko bermea eman beharko du.


Berme hori jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, 25. klausulan aipatutako eskakizuna jasotzen den egunetik kontaktzen hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren (aurrerantzean, SPKLTB) 96. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa erabil daitezke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatzailari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Udalak ez du esleipena bere alde egingo.

Berme-epaia amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako SPKLTBaren 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

#### 8. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da.

Kontratua gauzatzekoan, agiri honetan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.



Lezoko Unibertsitateko Udala

D14/00619 zenbakia duen DEKRETOZ  
20...14(e)ko...batez...9...e)an onartua.

Lezo,



2014 UZT. 09

Idazkariak,

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

## 9. KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK

Kontratatistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

## 10. AZPIKONTRATAZIOA

Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuan, bigarren mailako prestazioetarako bakarrik egin ahal izango dira azpi-kontratazioak.

## 11. LAGAPENA

Esleipendunak kontratutik eratorritako eskubide eta betebeharrak laga ahal izango ditu, SPKLTBaren 226. artikuluan ezarritakoaren arabera.

## 12. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE


Kontratatistaren ardura da kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz sor daitezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, SPKLTBaren 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

## 13. SUBROGAZIO KLAUSULA

Esleipendunak, aurreko emakidadunaz bestelako bat denean, zehaztutako lan harremanetan enplegatzaile gisa subrogatzearen betebeharrak betetze aldera, Preskripzio Teknikoen Agiriaren III. eranskinean jasoko da zerbitzuari atxikitako langileen zerrenda.

## 14. KONTRATUA ALDATZEA

Herri onurako arrazoiengatik eta SPKLTBaren I. Liburuko V. Tituluan aurreikusitako inguruabarrak gertatuz gero, Administrazioak kontratatutako zerbitzuaren ezaugarriak eta



Lezoko Unibertsitateko Udala

erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifak aldatu ahal izango ditu.

Lezo,



2014 UZT. 09

Idazkariak,

Lehen aipatutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

Aldaketaren ondoriozko oreka ekonomikoa mantentzeari dagokionez, SPKLTBaren 282. artikuluan ezarritakoa beteko da.

## 15. PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERME EPEA

Kontratu honen izaera dela eta, ez da berme-eperik jarriko.

## 16. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK, BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

### A. KONTRATUA BURUTZEAN AKATSAK EGITEA

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Udalak ekitaldirako aurreikusitako negozio bolumenaren % 10aren baliokide den zigorra ezarri ahal izango du.

### B. KAUDIMEN KONPROMISOAK EZ BETETZEA


Kontratistak bere eskaintzan adierazitako baliabide materialak eta giza baliabideak zerbitzu horretarako atxikitzeke betebeharra ez badu betetzen, 20. klausulan adierazi bezala, Administrazioak ekitaldirako aurreikusitako negozio bolumenaren % 10aren baliokide den zigorra ezarri ahal izango du.

## 17. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOTIAK

Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua amaitzeko arrazoiak izango dira SPKLTBaren 223. eta 286. artikuluetan ezarritakoak.

Kontratua amaitutzat emateko beste arrazoi bat 16. atalean jasotako ez betetzeen ondorio hiru isun irmo jasoak izana izango da.

## 18. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK



Lezoko Unibertsitateko Udala

Lezo,



2014 UZT. 09

Idazkariak,

Udalari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

## II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

### 19. ESLEIPENAREN PROZEDURA


Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da.

Kontratua esleitzeko oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta ematen zaien haztapena honako hauek dira:


- 1.- Eskaintza ekonomikoa: 51 puntu gehienez
- 2.- Proposamen teknikoa: 49 puntu gehienez

Aipatu irizpideen artean, balio judizio baten arabera direnak eta automatikoki baloratzen direnen aurretik balioetsiko direnak, honako hauek dira:

- PROPOSAMEN TEKNIKOA. 49 puntu gehienez. Proiektuan ondorengo atalak baloratuko dira:
  - I. Instalazioen kudeaketa plana: 15 puntu.
  - II. Kirol jardueren programa eta jarduera fisikoaren sustatze proiektuak: 12 puntu.
  - III. Instalazioen mantentze-lanen plana: 6 puntu.
  - IV. Instalazioen garbiketa plana: 6 puntu.
  - V. Marketing eta publizitate plana: 2 puntu.
  - VI. Plegu hauetan jasotako baldintzei eginiko hobekuntzak: 8 puntu.
    1. Irekiera ordutegian hobekuntzak gehienez 2'5 puntu.



Lezoko Unibertsitateko Udala



2. Proposatutako inbertsioak gehienez 2'5 puntu.
3. Bereziki kirol zerbitzuak ez diren zerbitzuen proposamenak gehienez 2 puntu.
4. Besteak gehienez puntu 1.

Hobekuntza hauek baloratzekoan kontuan hartuko da beraien kostua eta instalazioen erabiltzaileekiko erakargarritasuna.

Automatikoki kalkulatzen diren irizpideak, jarraian adierazten direnak, honako formula hauek aplikatuz balioetsiko dira:

- **ESKAINZA EKONOMIKOA:** Eskaintza merkeenari 51 puntu emango zaizkio eta gainontzekoei hiruko erregela aplikatuko zaie.


## 20. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Lehendakaria: Udaleko alkatea
- Batzordekideak: Udaleko Kirol Instalazioen zuzendaria, udal idazkaria, udal kontu-hartzailea.
- Mahaiko idazkaria: Udaleko administrari bat.
- Ordezkoak:
  - o Lehendakariarena: zinegotzi delegatua.
  - o Batzordekidearena: Kulturako arduraduna. Zuzendariarena, idazkariarena eta kontu-hartzailearena: jarduneko ordezkapenerako izendatzen direnak.
  - o Mahaiko idazkariarena: Udaleko administrari bat.

## 21. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio prozedura horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzekeo debekuren bat ez badute, SPKLTBaren 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzekeo eta ebaluatzekeo bideak 23.e)



Lezoko Unibertsitateko Udala

Lezo,  
2014 UZT. 09  
Aldazkariak,

klausulan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariek kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatuzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

## 22. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio tekniko ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da: LEKUA: Administrazio honetako Kultura Saila (Donibane kalea, 2) ORDUTEGIA: 8:30 – 13:30 EPEA: Egun baliadunetan, lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.


Proposamenak Udaleko informazio bulegoan (Gurutze Santuaren plaza, 1) aurkeztuko dira irailaren 3a arte ( data hori barne).

Gainera, eskaintza hau kontratazio organoaren kontratatzailearen profileen argitaratuko da, eta honako atari informatiko edo webgunean ere eskuratu ahal izango da: [www.lezo.net](http://www.lezo.net)

Gune berean, baldintza agiriak eta dokumentazio osagarria ere eskuratu ahal izango dira.

Lizitatuzaileek eskatutako baldintza agiriari eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria eskaintzak aurkezteko azken eguna baino sei egun lehenago emango da, betiere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

SPKLTBaren 158.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza agiriari eta dokumentazio



Lezoko Unibertsitateko Udala



2014 UZT. 09

Idazkariak,

osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko alde zurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza agiriari erantsitako dokumentazioa "in situ" kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta postaz bidalitako egun berean eskaintzaren bidalketa dataren egiaztagiria Kontratazio Organoari bidali bazaio telex, fax, telegrama edo posta elektronikoz.

### 23. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatuzaileek hiru gutun-azal (A, B eta C) aurkeztuko dituzte itxita. Gutun-azal bakoitzean honako hau idatziko da: "LEZOKO BEKOERROTA KIROLDEGIA ETA ALTZATE IGERILEKUA KIROL INSTALAZIOEN KUDEAKETA ZERBITZU INTEGRALAREN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".


Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-sinatzailearen izen-abizenak jarriko dira, noren izenean sinatzen duen zehaztuz. Hiru gutun-azalek ere sinatuta egon beharko dute.

"A" gutun-azalaren azpтитulua hau izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" gutun-azalean aurkeztu beharreko agiriak:


a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea aurkeztuko da eta erakunde honek askietsiko du gutun-azal horretan aurkeztutako agirien kalifikazio prozesuan.

b) Lizitatuzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratzeko edo aldaketako eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da,





## Lezoko Unibertsitateko Udala



hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitatuzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide edo merkataritza erregistroko inskripzioaren egiaztagiria edo inskribatuta egotearen zinpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.

Bestelako enpresari atzeritarren jarduteko gaitasuna Espainiak dagokion Estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza hartzen duen lurralde eremuko Kontsul Bulegoaren txostenaren bidez frogatuko da.

c) Lizitatuzaileak erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztu behar du, SPKLTBaren 60. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.


d) Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lizitatuzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Betiere, zerga horren matrikulan baxerik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

e) Kaudimen teknikoa eta ekonomikoa:


Lizitatuzailearen kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren egiaztagiriak aurkezteko, SPKLTBaren 75. artikuluko a) letran eta 78. artikuluko e) letran ezarritako baldintzetatik edozein erabili ahal izango da.

Goian aipatutako baldintzak direla eta, kontratu hau burutzeko enpresek bete behar dituzten gutxienezko kaudimen baldintzak hauek dira:

- Kaudimen ekonomikoari dagokionez, pertsona juridikoen kasuan, lizitatuzailearen edo, hala badagokio, elkartea osatzen duten lizitatuzaileetako bakoitzaren banakako urteko kontuak aurkeztu beharko dituzte, azken hiru (3) urteetakoak, behar bezala frogatu eta inskribatuta, kaudimen ekonomiko nahikoa badutela frogatzeko. Azken hiru ekitaldietan (2011-2012-



Lezoko Unibertsitateko Udala



2013) gutxienez 2014rako zerbitzu honetarako kalkulatuako negozio bolumenaren balioak izan behar dute, eta berezko funts positiboak izan behar dituzte. Kontuak ikuskatuta ez badaude legezko baldintza ez delako, arduradunaren ziurtagiri bat erantsiko da, aurkeztutako agiriak enpresaren egoerarekiko leialak direla bermatzen duena. Erregistro Ofizialetako urteko kontuak aurkeztera behartuta ez dauden enpresariak behar bezala legeztatutako kontabilitate liburuak aurkeztu ahal izango dituzte egiaztagiri gisa.


- Kaudimen teknikoari dagokionez, lizitatuak edo elkarteak osatzen duten lizitatuak bakoitzak (kasu honetan, kide guztien esperientziak batuko dira) azken hiru (3) urteetan egindako eta kontratuaren xedea osatzen duten zerbitzuen modukoak edo antzekoak diren lan nagusien zerrenda aurkeztu beharko da, honako hauek adierazita: zenbatekoa, data, onuradun publiko edo pribatuak, eta egindako jardueren deskribapen laburra. Prestazioaren hartzaile izandako erakundeak lana ongi egin izana adieraziz igorritako ziurtagiriak eta, halakorik ezean, lizitatuaren edo lizitatuaren elkartearen kaudimena egiaztatzeko balioak izan daitezkeen agiriak aurkeztuko dira.

Azken hiru urteetan gutxienez lizitazio prezioaren zenbatekoko erreferentzia bat egiaztatu beharko da.

Kaudimena frogatzeko, gainera, lizitatuak haien eskaintzetan zehaztutako baliabide materialak eta giza baliabideak zerbitzu horretara atxikitzeko konpromisoa agiriak aurkeztu beharko da. Baliabide horiek kontratuari atxikiko zaizkio derrigorrezko izaeraz eta, beraz, SPKLTBaren 64.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori betetzea kontratua bertan behera uzteko arrazoia izango da 223.f) artikuluan adierazi bezala.

Proposamenetan, kontratua burutuko duten langileen izen-abizenak eta horien lanbide prestakuntza adierazi beharko dira.

f) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa elkarte bat eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero ABEE formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestalde, ABEEko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.



Lezoko Unibertsitateko Udala



- g) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.
- h) Prozedura honen ondorioz sortzen diren jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa, SPKLTBaren 151.4 artikulua xedatutakoaren arabera.


Goiko a), b) eta e) puntuetan adierazitako baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Saillkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuko Lizitzaileen eta Saillkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin edo Europar Batasuneko sailkapen ziurtagiri batekin egiazta daitezke, SPKLTBaren 84. artikulua xedatutakoaren arabera. Aipatutako ziurtagiriarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla egiaztatzen duen lizitzailearen adierazpen arduratsua ere gehitu beharko da.

Aurreko atalean aipatutako ziurtagiria elektronikoki eman daiteke.


B gutun-azalaren azpititulua hau izango da: "BALIO JUDIZIO BATEN MENPEKO BALORAZIO IRIZPIDEAK". Bertan, agiri honen 19. klausulan adierazitako balio judizio baten menpeko irizpideei buruzko agiriak jasoko dira (PROPOSAMEN TEKNIKOA ETA HOBKUNTZAK), besteen artean jardueren programa, zerbitzu eta instalazioen erabilera plana, kudeaketa eta langileria antolaketa proiektua, mantentze-lan eta garbiketa planak, enpresaren esperientzia profesionalaren justifikazioa, marketing eta publizitate planak eta hobekuntzak jasoko direlarik.

C gutun-azalaren azpititulua hau izango da: "PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI BALORATZEKO IRIZPIDEAK". Honako agiri hauek barne hartuko ditu:

- I. I. eranskinean zehaztutako ereduaren arabeko proposamen ekonomikoa.
- II. Proposamen ekonomikoa onartzeko eta baloratzeko, C gutun-azalaren barnean enpresak 2015. urtean kirol instalazioak ustiatzearen ondorioz izango dituen diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua sartu beharko da. Aurreikusitako diru-sarrerak eta gastuak beren izaera ekonomikoaren arabera zehaztuta agertuko



Lezoko Unibertsitateko Udala



dira. Aurrekontu horri diru-sarreraren eta gastuen kontzeptu nagusiak kalkulatzeko modua azaltzen duten eranskinak gehituko zaizkio. Proposamena aurrekontu honen ondorio arrazoitua izan beharko da.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik administrazioak edo notarioak behar bezala konpultsatu edo egiaztatu behar ditu. Aipatu agiriak fotokopia hutsean ere aurkez daitezke baina, kasu horretan, lehen sailkatuak fotokopia horiek benetakoak direla erakutsiko du, jatorrizkoak aurkeztuz.

## 24. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA ETA ENPRESAK AUKERATZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako lan hauek burutuko dira:

### 1.. A GUTUN-AZALA IREKI ETA BERTAN DAUDEN AGIRIAK TRATATZEA


Kontratazio mahaiak A gutun-azalean dauden agiriak kalifikatuko ditu. Horretarako, lizitatzaileren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibideak edo agiri osagarriak eska ditzake. Mahaiak, horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 22. artikuluan adierazten den eran jardungo du, bost egun naturaleko epean. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio organoaren iragarki oholean eta kontratatzailearen profilean. Era berean, lizitatzailerek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lizitatzailerei, eta hiru egun baliouduneko epea jarriko die, aipatutako araudiko 81. artikuluan, akatsak zuzen ditzaten.

### 2.. ENPRESAK AUKERATZEA

Agiriak kalifikatu ondoren, eta akats eta hutsuneak zuzendu eta gero (halakorik badago), agiri honen 23. klausulako e) letran azaltzen diren irizpideak zein enpresak betetzen dituzten zehaztuko du mahaiak, eta berariaz adieraziko du zein enpresa onartu dituen lehiaketarako, zein baztertu dituen eta zergatik baztertu dituen.

### 3.. B GUTUN-AZALA PUBLIKOKI IREKITZEA

B gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa, balio judizio baten menpeko irizpideak barne



Lezoko Unibertsitateko Udala



2014 UZT. 09

Idazkariak,

hartzten dituen, publikoki irekiko da kontratatzailearen profilean adierazitako egun eta orduan.

#### 4.. C GUTUN-AZALA PUBLIKOKI IREKITZEA

B gutun-azala ireki eta bertako dokumentazioa baloratu ostean, C gutun-azala irekiko da publikoki, kontratatzailearen profilean adierazitako egun eta orduan.

Ekitaldi horretan, eskaintza bakoitzean balio judizio baten menpeko irizpideei esleitutako balorazioa jakinaraziko da.

#### 5.. ESKAINTZAK SAILKATZEA


Irizpide guztien balorazioa egiten denean, mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu, garrantziaren arabera, eta esleipen proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio organoari.

#### 6.. LEHEN SAILKATUARENTZAKO ERREKERIMENDUA, HALA BADAGOKIO

Aurreko pausoak eman ostean, lehen sailkatuari honako ekintzak egin ditzala eskatuko zaio, horretarako errekerimendua jaso eta hurrengo hamar egun balioduneko epean:

- a) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela frogatzen duten agiriak aurkeztea edo kontratazio organoari egoera hori horrela dela ziurtatzeko modu zuzena lortzeko baimena ematea. Ez da beharrezkoa izango agiri horiek berriz ere aurkeztea proposamenarekin batera aurkeztu baditu.
- b) Kontratua burutzeko beharrezkoak dituen bitartekoak eskuratzeko konpromisoa betetzearen ziurtagiria aurkeztea, agiri honen 23. klausulako e) letraren arabera.
- c) Behin betiko bermea eratu izanaren egiaztapena aurkeztea, hala badagokio.
- d) Jatorrizko agiriak aurkeztea, proposamena osatzen duten gutun-azaletan fotokopia hutsak aurkeztu badira.

Errekerimendua ez bada aipatutako epean behar bezala betetzen, lizitatzailerak eskaintza baztertu duela ulertuko da eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo



Lezoko Unibertsitateko Udala



Lezo, 2014 UZT. 09

Aldazkariak,

*[Handwritten signature]*

lizitatuazileari, eskaintzen sailkapenaren arabera.

**25. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK**

Kontratazio organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatuazileari egingo dio esleipena.

Esleipena 2 hileko epean egingo da proposamenak irekitzen diren egunaren biharamunetik kontaktzen hasita. Horren berri lizitatuazile guztiei emango zaie eta erakunde honen kontratatuazilearen profilean argitaratuko da.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio agiri gisa formalizatuz burutuko da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean (gehienez 15 egun baliodun), esleipendunak honakoak egingo ditu:

- a) Administrazio honen bulegoetara etortzea, kontratua administrazio agiri gisa formalizatzeko.
- b) Aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko publizitate ofizialeko gastuak ordaintzea. Gastu horien zenbatekoa 3.000 € izango da gehienez.

**III.- EZAUGARRIAK, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**


**26. KONTRATUAREN EZAUGARRIAK ETA ARAUBIDE JURIDIKOA**

Lehiaketa publiko honen ebazpenaren ondoriozko kontratua zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratua izango da, lagapen modalitatean, eta administrazio kontratua izango da. Agiri honetan ezarritakoaren arabera gauzatuko da, eta zehaztu gabeko alderdietan honako hauek aplikatuko



2014 UZT. 09

Idazkariak,



Lezoko Unibertsitateko Udala

ezarritakoaren arabera gauzatuko da, eta zehaztu gabeko alderdietan honako hauek aplikatuko dira: lizitazioa egitean eta kontratua garatzean indarrean dauden tokiko araubideko xedapenak, tokiko araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legea, tokiko araubidearen indarreko lege xedapenen testu bateratua eta horrekin bat datozen gainerako xedapenak arautzen dituen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, tokiko erakundeen ondasunen araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua (hala dagokionena) eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua. Horrez gain, administrazio zuzenbideko gainerako arauak eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak aplikatuko dira.

Baldintza agirian ezarritakoa interpretatzean sor daitezkeen gatazkak administrazio kontratatzaileak konponduko ditu hasiera batean. Alabaina, horren erabakiaren aurkako administrazio errekurtoa jarri edo administrazioarekiko auzien jurisdikziara jo ahal izango da.

Administrazio klausula partikularren agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak egonez gero, agiri honetan ezarritakoa nagusituko da.

## 27. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonaiak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLTBaren hogeita seigarren xedapen gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, datuen babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

## 28. JURISDIKZIO ESKUDUNA


Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio organoak ebatziko ditu eta organoak erabakitakoek administrazioaren bideari amaiera emango diote. Horiei aurka egin ahal izango zaie administrazioarekiko auzien jurisdikziari edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututako edozein jurisdikziori jarraituz.

Lezon, 2014ko uztailaren 9a.

NO 100 000  
SECRET







## Lezoko Unibertsitateko Udala

### I. ERANSKINA. LIZITATZAILEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEK JARRAITUKO DUTEN PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Nik,.....(e)k  
(helbidea:.....; PK:.....; NAN zk.:  
.....; telefonoa: .....; helbide elektronikoa: .....),  
zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin, nire izenean (edo enpresa honen izenean:  
.....; helbidea:.....  
.....; PK:.....; telefonoa:  
.....; NAN (pertsonea fisikoa bada) edo IFK (pertsonea juridikoa bada):  
.....),..... (e)k  
..... kontratatzeke asmoz  
deitutako prozedura irekiaren jakinaren gainean, hau ADIERAZTEN DUT:

- 1) Lezoko kirol instalazioen kudeaketa integralaz arduratzeko konpromisoa hartzen dut, Lezoko Udalaren .....€-ko diru-laguntzarekin.
- 2) Preskripzio teknikoaren agiria, administrazio baldintza berezien agiria eta kontratu hau arautu behar duten gainerako agiriak ezagutzen ditut, eta horiek neure gain hartu eta ontzat ematen ditut oso-osorik.
- 3) Ordezkatzen dudana enpresak ireki, instalatu eta jarduteko indarreko araudiak ezartzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

.....(e)n, 20....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Sinadura

